



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

eGelaPI eskuliburua

eGELAKO KALIFIKAZIO- LIBURUAREN APLIKAZIO PRAKTIKOAK

www.ehu.eus

1 Edukien aurkibidea

1	Edukien aurkibidea	2
1	Sarrera.....	3
1.1	Kalifikatzaileko tresna eta atalak	3
1.1.1	Oinarrizko bi tresnak.....	3
1.1.2	Esportatu eta inportatu.....	3
1.1.3	Kontuan hartu beharreko beste tresna batzuk.....	3
1.2	Kalifikatzaile-txostena kontsultatu.....	3
1.3	Jarduerak kalifikatzeko aukerak	4
1.4	Ikastaroaren eta kategorien guztizkoaren kalkulurako ezarpenak.....	5
1.4.1	Kalifikazioen batez besteko ponderatua.....	8
1.4.2	Kalifikazioen batez bestekoa.....	9
1.4.3	Kalifikazioen batez besteko ponderatua.....	9
1.4.4	Baztertu hutsik dauden kalifikazioak	11
1.4.5	NATURALA Agregazioa metodoa.....	12
2	Ikastaroko jarduerak kategorietan antolatu	13
2.1	Zereginak kategorietan antolatu	13
2.2	Kalifikazio-elementua sortu eta notak kalkulu-orritik kargatu.....	15
2.3	Kategorietan pisuak ezarri	20
2.4	“Batuketa_naturala” metodoa erabiliz kategorien pisuak ezarri.....	21
3	“Kalkulatutako kalifikazioak” eta baldintzazkoak.....	22
3.1	Kalkulatutako kalifikazioetara sarrera.....	22
3.2	Adibide erraz bat MAX eragilea erabiliz.....	24
3.3	Adibide bat IF eragilea erabiliz.....	24
3.4	IF eta AND eragileak konbinatuz adibide bat.....	25
4	Azken ezarpenak eta kudeaketa.....	26
4.1	Ikasleen ikuspegia konfiguratu	26
4.2	Jarduerak ikastaroan edo Kalifikazio-liburuan ezkutatu	27
4.3	Bi estrategia ikasleei informazioa erakusteko.....	29
4.4	Zeregin berdinentzat bi bidalketa ezberdin antolatu.....	29
5	Kalifikazio-liburuko datuak kontsultatu.....	31
5.1	Kalifikazio-historia eta nota anulatuak.....	31
5.1.1	Baliogabetutako notak.....	32


Honako eskuliburu hau Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko eCampusak landu du. Eskuliburu hau eta eCampus-eko gainerako eskuliburuak web orri honetatik deskarga daitezke <https://www.ehu.eus/eu/web/ecampus/eskuliburuak>. Lan hau Creative Commons-en Nazioarteko 3.0 lizentziaren mendeko Azterketa-Ez komertzial-Partekatu lizentziaren mende dago. Lizentzia horren kopia ikusteko, sartu <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/es/>

1 Sarrera

Lehen atal honetan "Kalifikazio-liburua"ren oinarrizko tresnak azaltzen dira. Hasteko, menu nagusian dauden atalak berrikusiko dira, eskuliburuan zehar erabiliko diren atalak identifikatzeko. Jarraian, taula nagusiko, Kalifikatzaile-txosteneko, elementuak deskribatzen dira. Hirugarren atalean jardueren kalifikazioak Kalifikazio liburuan nola integratzen diren eta horien ezaugarri espezifikoak azalduko dira. Bukatzeko, laugarren atalean, ikastaroaren edo kalifikazio-kategorien guztizkoa kalkulatzeko dauden metodoak azaltzen dira.

1.1 Kalifikatzaileko tresna eta atalak

Atal honetan menu zabalgarrian dauden "Kalifikazio-liburua"ko aukera ezberdinak azaltzen dira.



eskuragarri dauden eskala "estandarrik" kontsultatu eta "eskala pertsonalizatuak" sortzeko aukera ahalbidetzen du.

[Eduki haueki buruzko bideora esteka](#)

1.2 Kalifikatzaile-txostena kontsultatu

"Kalifikatzaile-txostena" jarduera bakoitzean lortu diren kalifikazioak erakusten dituen taula da. Jarduerak kategoriatan eta azpikategorietan antola daitezke. Hurrengo irudian, funtzionamendua ulertzeko elementu garrantzitsuak nabarmentzen dira.

1.1.1 Oinarrizko bi tresnak

Ezagutu beharreko lehenengo tresnak **berdez adierazitakoak** dira (1). "Kalifikatzaile-txostena" ikasleak ilaratan eta ebaluazio-probak zutabeetan erakusten dituen taula da. "Kalifikazio-liburuaren ezarpnak" tresnak, antolaketa aukera ia guztiak biltzen ditu: guztizkoak kalkulatzeko metodoak ezartzea, jarduerak kategoriatan ordenatzea eta kalifikazio elementuak, hau da, kalifikazio osagarriak inportatzeko eskuz sortutako zutabeak, sortzea ahalbidetzen du.

1.1.2 Esportatu eta inportatu

Kalkulu-orri batetik kalifikazioak esportatzeko eta inportatzeko tresnak **urdinez** nabarmentzen direnak dira (2). "**Esportatu**" > **Excel kalkulu-orria** aukerak hautatutako zutabeak esportatzen ditu. "**Inportatu**" > **Itsatsi kalkulu-orritik** aukerak aldiz, azkar eta intuitiboki erregistroak datu-orri horretatik, mahaigaineko aplikazio baten bidez aldatu ondoren, inportatzeko aukera eskaintzen du.


1.1.3 Kontuan hartu beharreko beste tresna batzuk

Laranjaz beste tresna interesgarri batzuk azpimarratzen dira (3). "Ikusi" atalaren baitan, "Kalifikazio-historia"n kalifikazio baten ondoz ondoko aldaketak erakusten ditu, "Ikuspegi sinplea"n aldiz, erabiltzaile edo jarduera espezifiko batean ardaizten du erakusten duen emaitza, eta "Erabiltzailearen txostena" ikasleek ikus ditzaketen kalifikazioak eta irakasleentzat eskuragarri daudenak alderatzea ahalbidetzen du, jarduerak edo bestelako elementuak ezkututzen direnean.

"Ezarpnak" > "Ikastaroaren kalifikazioen ezarpnak" aukera, ikasleei erakusten zaien informazioa doitzeko aukera ematen du (jarduera ezkutuak dituzten kategorien guztizko kalifikazioen pisu erlatiboak...). "**Eskalak**" > **Ikusi** aukerak

Izena / Abizena		Helbide elektronikoa	Tarea 1	Cuestionario 1	Whole forum grade for For...	Ikastaroan guztira
ikasle 1	ikasle1@ehu.eus	80,00	10,00	3.1	***	81,42
ikasle 2	ikasle2@ehu.eus	50,00	5,00		* Muy pobre	48,67
ikasle 3	ikasle3@ehu.eus	40,00	8,00		-	43,64
ikasle 4	ikasle4@ehu.eus	60,00	5,00		-	59,09
Batez besteko orokorra		Batez besteko orokorra	57,50	7,00	**	58,20

Irudian kategorija bakarra, ikastaroaren kategorija nagusia, duen ikastaro baten "Kalifikatzaile-txostena" agertzen da, non 4 ikasle matrikututa dauden (1). Kategorija horretan lau zutabe daude, hiru jarduera eta ikastaroaren guztira (1.1). Ikasle edo jarduera kopurua handitzen denean, ikasleen izenak dituen zutabea eta jardueren izenak dituen goiburuerroa inmobilizatuko dira, eta ikusgai jarraituko dute scroll bertikala edo horizontala erabiliz gero ere, pantailatik kanpo geratzen diren taulako ataletara sartu ahal izateko.

Gainera, **kategoria bakoitzaren izenaren eskuinaldean dagoen ikonoari** esker (2), kategoriak kolapsatu eta heda daitezke, horrela irudian aurkeztutakoa baino taula handiagoetarako nabigazioa optimizatuz. Lehenetsita, (-) marra agertzen da eta horrek kategorian sartutako kalifikazio guztiak eta emaitza osoa erakusten direla esan nahi du. Marra (-) hori sakatzen denean gehi (+) zeinu bihurtzen da, eta kategoriaren guztizkoa bakarrik erakutsiko da. Berrir sakatuz gero, karratu bat agertuko da  eta justu kontrakoa gertatuko da: ez da guztizkoa azalduko, baina kategoriaren edukia ikusiko da, hau da, kalifikazio guztiak. Berrir sakatuz gero, hasierako posizioa itzuliko da.

"Aktibatu edizioa" (3) sakatuz gero, kalifikatzaile-txosteneko notak aldatzeko aukera dago. Prozedura hori ez da sistematikoki erabili behar. Kalifikazioak zuzenean sartuz gero, gelaxkak marroi kolorez markatuko dira, *Cuestionario 1* zutabean ikus daitezkeen bezala (3.1). Kasu honetan eskuz sartutako nota horien eta galdetegitik bertatik datozen noten artean arazoak sor daitezke eta hauek blokeatzea eta/edo baliogabetzea eta aldi berean goragoko kategorietako kalkuluak blokeatzea eragin dezake.

Azkenik, "Tarea 1" (4) zereginaren zutabeko balioek duten berde edo gorri koloreak, jardueraren ezarpenetan ezarritako gaitzeko gutxieneko kalifikaziora ailegatu diren edo ez adierazten du.


[Eduki haueki buruzko bideora esteka](#)

1.3 Jarduerak kalifikatzeko aukerak

Jarduera bat sortzerakoan **ezarpenetan** "Kalifikazioa" atalean kalifikazioa mota ("**Puntuazioa**", "**Eskala**" edo "**Bat ere ez**") (1) eta "**Gehienezko puntuazioa**" zehatz daitezke. Irudian, zeregin baten ezarpenetan aipatutako atala ikus daiteke.

Kalifikazioa

Kalifikazioa

Mota: 

Gehienezko puntuazioa:

Callout 1 points to the 'Bat ere ez' option in the dropdown menu.

Callout 2 points to the '100' value in the 'Gehienezko puntuazioa' field.

Hurrengo taulan, eGelan eskuragarri dauden **jarduera mota guztien kalifikatzeko aukerak** laburbiltzen dira. Ikus daitekeenez, "Zereginek", "Tailerrek" eta autoebaluazioek kalifikazio aukerak aktibatuta dituzte berez, baina gainerako jardueretan batzuetan **aktibatzea bada**, "Foro" en kasuan adibidez, baina beste kasu batzuetan, wikiak adibidez, **ez dago aukera hori eskuragarri**. "Puntuazioa" edo "Eskala" aukera markatzen denean, jarduera horrentzat "Kalifikazio txostenean" zutabe bat gehitzen da, "Tailerra" ren kasuan izan ezik, zeinetan bi zutabe sortzen diren.

Gainera, gehieneko puntuazioaren balioa **100** da kasu guztietan, galdegiaren kasuan izan ezik, lehenetsitako puntuazioa **10** delarik.

	Kalifikazioa aukerak	Berez ezarritako puntuazioa
Eskuz kalifikatzen diren jarduerak		
Zeregina	Bai	100
Tailerra	Bai	80+20
Autoebaluaketak		
Galdetegia	Bai	10
HotPot	Bai	100
Ikasgaia	Bai	100
H5P	Bai	100
SCORM	Bai	100
Wooclap	Bai	100
Kanpoko tresna (LTI)	Bai	100
Elkarlanerako jarduerak edo/eta jarduera irekiak planteatu		
Foroa	Bai, baina berez ez dago aktibatuta	100
Wikia	Ez	
Formularioak (Datu basea)	Bai, baina berez ez dago aktibatuta	100
Glosarioa	Bai, baina berez ez dago aktibatuta	100
Beste jarduera batzuk		
Inkesta (Feedback - ikono laranja)	Ez	
Galdeketa (Questionnaire - ikono urdina)	Bai, baina berez ez dago aktibatuta	100
Kontsulta	Ez	
Hausnarketa	Ez	
Egunkaria	Bai	100
Talde-aukeraketa automatikoa	Ez	
Txat gela	Ez	
Webex (ikusitako Kanpoko tresna LTI)	Bai	100
Hitzordua	Bai, baina berez ez dago aktibatuta	100

"Gehieneko puntuazio" etan dagoen ezberdintasun hori garrantzitsua da, izan ere aurrerago azalduko dugun bezala, kategoriaren guztizkoa kalkulatzeko agregazio metodoa "Kalifikazioen batezbesteko ponderatu sinplea" denean puntuazio maximo handiagoa duten jarduerari balio handixeagoa ematen baitie. Gainera, garrantzitsuagoa dena, jardueretan gehieneko puntuazio ezberdinak izatea nahasgarria izan daiteke. Hori dela eta, komenigarria da jarduera guztien gehieneko puntuazioak 10era egokitzea eta ondorioz, ikastaroaren gehieneko puntuazioa ere 100tik 10era aldatzea.

[Eduki hauei buruzko bideoa esteka](#)

1.4 Ikastaroaren eta kategorien guztizkoaren kalkulurako ezarpenak

"Kalifikazio liburua" ak ikastaroaren guztizkoa eta bere baitan sortutako kategoriena kalkulatzeko hainbat metodo eskaintzen ditu. Metodo bakoitzaren funtzionamendua azaldu aurretik, ondorengo adibidean azaltzen diren jarduerak zehaztuko dira.

Ondorengo irudian, hiru jardueran dituen ikastaro baten "Kalifikatzaile txostena" erakusten da: gehienezko puntuazioa 100 duen "zeregina" (1), gehienezko puntuazioa 10 duen "galdetegia" (2) eta lau mailadun (Oso eskasa, **, ***, **** Bikaina) eskala duen "foroa" (3). Gainera, **bi ikasle foroan kalifikatu gabe** azaltzen dira (3.1), "kalifikazio hutsekin" kalifikatzaileak dituen aukerak aztertzeko. Azkenik, "Ikastaroaren guztira" (4) zutabea ikus daiteke. "Kalifikatzaile txosten" honetan ez da zehazten zein den guztizko kalkulurako agregazio metodoa.

Izena / Abizena ^		Helbide elektronikoa	1. Zeregina	1. Galdetegia	1. Foroa foro osoa	Ikastaroaren guztira
ikasle 1	ikasle1@ehu.eus	80,00	10,00	***	81,42	
ikasle 2	ikasle2@ehu.eus	50,00	5,00	* Oso eskas	48,67	
ikasle 3	ikasle3@ehu.eus	40,00	8,00	-	43,64	
ikasle 4	ikasle4@ehu.eus	60,00	5,00	-	59,09	
Batez besteko orokorra	Batez besteko orokorra	57,50	7,00	**	58,20	

Guztizko kalkulurako agregazio metodoa aldatu ahal izateko, "Kalifikazio-liburuaren ezarpenetara" (1) sartu beharko da menu zabalgarria erabiliz.

Hurrengo irudian kategoriak ez duen ikastaro bat azaltzen da. Jarduera guztiak ikastaroaren baitan azaltzen dira, horrek "kategoria nagusi" gisa jokatzen duelarik. Sortutako hiru jarduerak kalifikazioa aktibatuta dute eta lerroka azaltzen dira eta lerro bakoitzean ondoko zutabeak azaltzen dira: "Izena", "Gehienezko kalifikazioa" eta "Ekintzak" (2).

- "Izena" zutabearen jardueren izenak eta ikastaroarena, "Adibide ikastaroa", azaltzen dira. Gainera, kategoriaren guztizkoan **agregazio metodoa** zehazten da (3), kasu honetan "Kalifikazioen batez besteko ponderatu simplea".
- "Gehienezko kalifikazioa" zutabearen zereginari dagokion puntuazioa (100), galdetegiari dagokiona (10) eta lau mailako eskala (0tik 3ra) ikus daitezke. Balio hauek jardueretatik datoz eta ezin dira Kalifikazio-liburutik aldatu.
- Elementu bakoitzaren "Ekintzak" zutabearen bi aukera zabaltzen dira: "Editatu ezarpenak" eta "Ezkatatu" (galdetegien kasuan izan ezik, non ezkutatzeko aukera jardueratik bertatik kontrolatzen den (ikusi "Berrikusketen aukerak").

Ikastaroari dagokion kategoria nagusia **"Editatu" > "Editatu ezarpena"** (4) sakatu eta irudi honetan erakusten den orria zabaltzen da

"Agregazioa" (1) elementuaren menu zabalgarrian sakatuz gero hainbat aukera aurkezten dira. Hurrengo atalean nabarmenenak azaltzen dira: **"Kalifikazioen batez besteko ponderatu sinplea"** (ikastaroan eta kategoria berria

bat sortzerakoan lehenesten den aukera), **"Kalifikazioen batez bestekoa"** , **"Kalifikazioen batez besteko ponderatua"** eta **"Naturala"** (batuketa).

- **"Kalifikazioen batez besteko ponderatu sinplea"**: eGelan aukera hau lehenetsita agertzen da. Kalifikazio maximo handiagoa duten jarduerak pisu handiagoa dute (adibidez, zereginak, gehienezko kalifikazio 100 dutenek, galdetegiek baino pisu handiagoa izango dute, hauek gehienezko kalifikazioa 10 duten heinean).
- **"Kalifikazioen batez bestekoa"**: metodo honek batez besteko zehatza kalkulatzen du, gehienezko kalifikazioaren arabera ponderazioa ezabatuz.
- **"Kalifikazioen batez bestekoa ponderatua"**: aurreko aukeran bezala, kalifikazioen batz bestekoa kalkulatzen da, baina jarduera bakoitzean pisu erlatiboak ezar daitezke.
- **"Naturala (batura)"**: kalifikazioen batura kalkulatzen du. Kontuan izan behar da kalkulu mota honek kategoriaren kalifikazio maximoaren balio gisa, kategoria horretako jarduera guztien kalifikazio maximoen batura jartzeko duela.

Kontutan izan behar da orri honetan atal guztiak kolapsatuta azaltzen direla eta "Erakutsi gehiago" (2; 3) sakatzuz zabal daitezkeela.

[Eduki hauei buruzko bideora esteka](#)

1.4.1 Kalifikazioen batez besteko ponderatua

Hurrengo irudian ikastaroko "Kalifikatzaile txostena" erakusten da. Adibide honetan agregazio metodoa "Kalifikazioen batez besteko ponderatu sinplea" aukeratu da, ikastaroan eta kategoria berria sortzean lehenesten den metodoa delarik. Gainera foroari dagokion 4 mailako eskalaren balioak erakusten dira. Era berean, ikasle bakoitzarentzako ikastaroaren guztizkoak nabarmenduta azaltzen dira- atal honetan horiek kalkulua azalduko da.

		Adibide ikastaroa				
		1. Zeregina	1. Galdetegia	1. Foroa foro osoa	Ikastaroan guztira	
ikasle 1	ikasle1@ehu.eus	80,00	10,00	***		81,42
ikasle 2	ikasle2@ehu.eus	50,00	5,00	* Oso eskas		48,67
ikasle 3	ikasle3@ehu.eus	40,00	8,00	-		43,64
ikasle 4	ikasle4@ehu.eus	60,00	5,00	-		59,09
Batez besteko orokorra	Batez besteko orokorra	57,50	7,00	**		58,20

Agregazio metodo hau erabiltzen denean, jarduera bakoitzaren gehienezko kalifikazioak ponderazio gisa jotzen du. Kontuan izan behar da, ikastaro honetan hiru jarduera daudela, ondorengo gehienezko kalifikazioekin:

- 1. Zeregina 1: **100**
- 1. Galdetegia: **10**
- Foroa: 4 mailatako eskala, Orik aurrera kalkulatu beharrekoa. Beraz, gehienezko kalifikazioa 3 izango da.

Formula honetan, **kalifikazio guztien batura** zati **gehienezko kalifikazioen batura** egingo da :

$$=round((80+10+2)/(100+10+3); 4)*100$$

3.erroko balioekin probatzen bada, non kalifikazio huts bat dagoen, lortzen den **emaitza ez da zuzena**. Aurrerako azalduko da zergatik.

$$=round((40+8+0)/(100+10+3); 4)*100$$

Ikus daitekeenez, ez batez besteko zehatza, guztizko kalifikazioek ponderatzen edo haztatzen dutelako. Moodle-n jarduera gehienek gehienezko kalifikazioa 100 dute, galdetegiak izan ezik 10 dutela, jarduera horiek kalkulu metodo honekin pisu gutxiago dute. Aldea ez da oso handia, baina ziurrenetik kalkulu zehatzagoa beharko da, normalean. Ondorengo ataletan azaltzen da nola egin.

1.4.2 Kalifikazioen batez bestekoa

Azaltzen den hurrengo agregazio metodoa "Kalifikazioen batez bestekoa" da, eta honekin ponderazio edo haztapenik gabeko emaitza lortzen da.

Agregazioa		Kalifikazioen batez bestekoa			
Adibide ikastaroa					
Izena / Abizena	Helbide elektronikoa	1. Zeregina	1. Galdetegia	1. Foroa foro osoa	Ikastaroan guztira
ikasle 1	ikasle1@ehu.eus	80,00	10,00	***	82,22
ikasle 2	ikasle2@ehu.eus	50,00	5,00	* Oso eskas	33,33
ikasle 3	ikasle3@ehu.eus	40,00	8,00	-	60,00
ikasle 4	ikasle4@ehu.eus	60,00	5,00	-	55,00
Batez besteko orokorra	Batez besteko orokorra	57,50	7,00	**	57,64

Metodo honek **kalifikazio guztiak gehienezko kalifikazioekin** zatitu eta emaitzak batu egiten ditu ondoren, **jarduera kopuruagatik** zatitzeko.

$$=round(((80/100)+(10/10)+(2/3))/3;4)*100 (=82,22)$$

Hau izango da agregazio metodo egokia jarduera guztiak pisu bera izatea nahi izanez gero, gehienezko kalifikazioa kontutan izan gabe. Kasu honetan, foroko kalifikazioak zeregin edo galdetegiak duten pisu bera dauka.

Aurreko agregazio metodoan gertatzen den bezala, formula eta irudiaren emaitza berdinak dira **1 eta 2. lerroako ikasleentzat** baina ezberdinak **3 eta 4 lerroetako ikasleentzat**. 3 eta 4. lerroetan erakusten den emaitza kalifikazioen batez bestekoa erabiliz kalkulatu da, balio hutsak kenduta. Beraz, erabili beharreko formula honako hau izango litzateke:

$$=round(((40/100)+(8/10))/2;4)*100 (=60)$$

1.4.3 Kalifikazioen batez besteko ponderatua

Ondoren, kalifikazioen artean pisu erlatiboak ezartzea ahalbidetzen duen ponderazio metodoa, "**Kalifikazioen batez besteko ponderatua**", aztertuko da. Ondorengo adibidean aurreko adibideetan erabili diren hiru jarduerak erabiliko dira, baina irakasgai osoko kalifikazioen kalkulua antolatzeke kategoriekin ere egin daiteke.

Hurrengo irudian adierazten den bezala, erabilitako metodoa "Kalifikazioen batez besteko ponderatua" da. Guztizko emaitzak "Kalifikazioen batez bestekoaren" berdinak dira, pisuak oraindik aldatu ez direlako. Emaitzak lortzeko formula honako hau da:

$$round(((80/100)*1)+((10/10)*1)+((2/3)*1))/3; 4*100$$

Formula "Kalifikazioen batez bestekoa"rekin erabilitako berdina da, bakoitza 1ez biderkatzen ari denean izan ezik. Horrek jakina ez du emaitza aldatzen, elementu bakoitzarentzat pisu batzuk ezartzen direnera arte.

Agregazioa		Kalifikazioen batez besteko ponderatua				
Adibide ikastaroa						
Izena / Abizena	Helbide elektronikoa	1. Zeregina	1. Galdetegia	1. Foroa foro osoa	Ikastaroan guztira	
ikasle 1	ikasle1@ehu.eus	80,00	10,00	***		82,22
ikasle 2	ikasle2@ehu.eus	50,00	5,00	* Oso eskas		33,33
ikasle 3	ikasle3@ehu.eus	40,00	8,00	-		60,00
ikasle 4	ikasle4@ehu.eus	60,00	5,00	-		55,00
Batez besteko orokorra	Batez besteko orokorra	57,50	7,00	**		57,64

Pisuak "Kalifikazio-liburuaren ezarpenak" orritik gehitzen dira. Hurrengo irudian azaltzen den adibidean, beraz ezarritako 1 balioaren orde, pisu hauek ezarri dira: 5 zereginarentzako, 3 galdetegiarentzako eta 2 foroarentzako. Elementu ponderatu edo haztatuen arteko pisu erlatiboa ulertzeko modu on bat pisu guztien baturak 10 izatea izango litzateke (5+3+2).

Agregazioa		Kalifikazioen batez besteko ponderatua		
Izena	Pisuak	Gehienezko kalifikazioa	Ekintzak	
Adibide ikastaroa	5,0	-	Editatu	
1. Zeregina	3,0	100,00	Editatu	
1. Galdetegia	2,0	10,00	Editatu	
1. Foroa foro osoa	1,0	*** Excelente (4)	Editatu	
Ikastaroan guztira		100,00	Editatu	

Irudi honetan, aipatutako pisuak sartu ondoren "Kalifikatzaile-txostena" k islatzen dituen emaitzak ikusten dira.

$$\text{round}(\frac{((80/100)*5)+((10/10)*3)+((2/3)*2)}{10}; 4)*100$$

<input type="text" value="5,0"/> <input type="text" value="3,0"/> <input type="text" value="2,0"/>		Agregazioa ? Kalifikazioen batez besteko ponderatua ▾				
Adibide ikastaroa						
Izena / Abizena	Helbide elektronikoa	1. Zeregina	1. Galdetegia	1. Foroa foro osoa	Ikastaroan guztira	
ikasle 1	ikasle1@ehu.eus	80,00	10,00	***		83,33
ikasle 2	ikasle2@ehu.eus	50,00	5,00	* Oso eskas		40,00
ikasle 3	ikasle3@ehu.eus	40,00	8,00	-		55,00
ikasle 4	ikasle4@ehu.eus	60,00	5,00	-		56,25
Batez besteko orokorra	Batez besteko orokorra	57,50	7,00	**		58,65


1.4.4 Baztertu hutsik dauden kalifikazioak

Aurreko adibideetan adierazi den bezala, 3. eta 4. lerroen guztizkoetan ez ziren kalifikazio hutsak kontuan hartzen. Aukera hori lehenetsita dago "Baztertu hutsik dauden kalifikazioak" laukian, ikastaroko kategoria nagusian eta kategoria berri guztietan. Hau horrela, guztizkoek jarduerari esleitutako emaitza erakusten dute soilik. Baina honela eginez gero, ez dira zigortzen entregatu ez dituzten zereginak: 3 eta 4 lerroetako kalifikazioa egokituko litzatekeena baino altuagoa da entregatu ez den zereginaren nota guztizko kalkulutik kanpo gelditu delako, 0 gisa hartu beharrean. Gainera jarduerari pisu erlatiboak ezarri bazaizkie guztizko emaitzak desitxuratuta geratuko dira. Arazo hau ebazteko hainbat modu daude, oraingo honetan "baztertu hutsik dauden kalifikazioak" desmarkatzearena azalduko da solik.

<input type="text" value="5,0"/> <input type="text" value="3,0"/> <input type="text" value="2,0"/>		Agregazioa ? Kalifikazioen batez besteko ponderatua ▾				
Adibide ikastaroa						
Izena / Abizena	Helbide elektronikoa	1. Zeregina	1. Galdetegia	1. Foroa foro osoa	Ikastaroan guztira	
ikasle 1	ikasle1@ehu.eus	80,00	10,00	***		83,33
ikasle 2	ikasle2@ehu.eus	50,00	5,00	* Oso eskas		40,00
ikasle 3	ikasle3@ehu.eus	40,00	8,00	-		55,00
ikasle 4	ikasle4@ehu.eus	60,00	5,00	-		56,25
Batez besteko orokorra	Batez besteko orokorra	57,50	7,00	**		58,65

Txostenaren 3. lerroan ikus daiteke emaitza 55/100 dela, baina nota hori txikiagoa izango litzateke foroaren jarduera 0 gisa kontuan hartuko balitz. Hurrengo formulaz ikus daitekeenez, foroaren jardueraren pisua ez dago sartuta.

$$=round((((40/100)*5)+((8/10)*3))/(5+3); 4)*100 (=55,00)$$



Ikastaroaren kategoria nagusiari dagokion "baztertu hutsik dauden kalifikazioak" laukitxoa desmarkatzeko, "**Konfiguratu kalifikazioak**" orrira sartu eta "**Editatu**" > "**Editatu ezarpenak**" sakatu behar da "**Ekintzak**" zutabearen. Ondoren, "kategorian guztira" eremuaren baitan "Erakutsi gehiago" (1) sakatu beharko da aukera guztiak erakusteko eta "baztertu hutsik dauden kalifikazioak" (2) desmarkatu ahal izateko.


Kalifikazio hutsak dituzten lerroen emaitzak beherantz egin dute, hauek kontuan hartu direlako.

$$=round((((40/100)*5)+((8/10)*3)+((0/3)*2))/(5+3+2); 4)*100 (=44,00)$$

1.4.5 NATURALA Agregazioa metodoa

Orain, "Baturaren (**Naturala** plataforman)" portaera aztertuko da, hau izango da deskribatuko den azken metodoa (gainerakoen erabilera ez baita oso ohikoa).

Batuketa **jardueren guztizko kalkulua antolatzeke modu erraza da**, eta duen abantaila elementu bakoitzaren pisu erlatiboa oso ondo ulertzen dela da. Baina, hurrengo irudiko nabarmendutako lehen elementuan ikus daitekeenez, ikastaroaren edo sartu den kategoriaren kalifikazio maximoa **aldatzen** du, eta batugaien guztizkora egokitzen du.



Ikastaroko gehienezko kalifikazio, orain arte **100**ekoa zena, **114** (1) da orain. Gainera, kategoria edo ikastaroaren (kategoria nagusia) guztizko kalifikazio maximoa, Naturala_Batuketa agregazio metodo gisa aukeratzen denean, **ezin da aldatu**, eta irtenbide bakarra batugaien balioak aldatzea, 100era egokitu daitezten.

Hau bada Batura_Naturalak duen funtzionamendua, inork ez duela inolako erabilgarritasunik pentsa daiteke, inork ez duelako ikastaroaren guztizko kalifikazio bezala 114 ezartzen...ezta jarduerarik 86 oinarri bezala duenik.

Hala ere, arazo hori ez da agertzen kategoriek beste agregazio metodo izan eta batzen direnean, eta horietan guztizkoa alda daiteke. Adibidez, 40 jarri ahal zaio "Azterketa" kategoriari, eta 60 "Ebaluazio jarraia" kategoriari. Horrek, aurrerago azalduko den edukietara garamatza, bertan ikusiko baita nola erabil daitezkeen kategoriak ikastaroaren kalifikazioaren kalkulua antolatzeke.

Gainera, beste xehetasun bat ere adierazi behar da. Foroan aplikatutako eskalaren puntuazioa ez da 0tik abiatzen, aurreko elementuetan bezala, 1etik baizik. Horrela, lau mailako eskala bat 1etik 4ra doa, irudian (2) erakusten den bezala.

[Eduki hauei buruzko bideora esteka](#)

2 Ikastaroko jarduerak kategorietan antolatu

Kalifikatzaileak irakasgai bateko jarduerak antolatzeko, kategoriak eta azpikategoriak sortzeko aukera ematen du. Gainera, kalifikazio-elementuak sor daitezke, hau da, ikasgela birtualeko jarduerekin zerikusirik ez duten kalifikatzailearen txosteneko zutabeak. Kalifikazio-elementu horien kalifikazioak eskuz edita daitezke, eta kalifikazioak kalkulu-orri batetik inporta daitezke baita.

2.1 Zereginak kategorietan antolatu

Landuko den ondorengo adibidean, bi kategoria daude, **“Ebaluazioa jarraia”** eta **“Azterketa”**, eta lehenengo kategoriaren baitan, **“Pisurik gabeko ebaluazio jarraia”** azpikategoria.

Lehenen urrats gisa, «Kalifikazio liburuaren ezarpenak» atalean sartu eta ikastaroa kalkulatzeko agregazio metodoa aldatu beharko da, kategorien artean pisuak ezarri ahal izateko, aurreko atalean erakutsi den bezala.

The screenshot shows the configuration interface for 'Kalifikazio-kategoria'. It includes fields for 'Kategoriaren izena', 'Kalkulazio metodoa', 'Kalkulazio bidezko balioa', 'Kalkulazio bidezko balioa (aparteko kredituekin)', 'Kalifikazioen mediana', 'Kalifikazio baxuena', 'Kalifikazio altuena', 'Kalifikazioen moda', and 'Naturala'. A red circle with the number '1' is placed over the 'Agregazioa' dropdown menu, and a red arrow points from it to a list of aggregation methods. The selected option is 'Kalifikazioen batez besteko ponderatua'.

Ezarpen horiek gorde ondoren, berriro “Kalifikazio liburuaren ezarpenak” atalean beheko aldean azaltzen den **“Gehitu kategoria”** (1) izeneko botoia sakatu beharko da.

The screenshot shows the 'Ikastaroan guztira' summary card. It displays the course name 'Ikastaroan guztira', the total score '100,00', and the 'Editatu' button. Below the card, there is a section titled 'Gorde aldaketak' with a dropdown menu 'Mugitu aukeratutako elementuak hona:' and a 'Gehitu kategoria' button. A red circle with the number '1' is placed over the 'Gehitu kategoria' button.

Irudian, kategoria bat konfiguratzeko formularioa agertzen da. Hiru alta ditu: **“Kalifikazio-kategoria”**(1), **“Kategorian guztira”** (2) eta **“Goragoko kategoria”** (3)

▶ Zabaldu guztia

▼ **Kalifikazio-kategoria** **1**

Kategoriaren izena **1.1**

Agregazioa **1.2**

Baztertu hutsik dauden kalifikazioak **1.3**

Baztertu baxuena

Erakutsi gutxiago...

▶ **Kategorian guztira** **2**

▶ **Goragoko kategoria** **3**

Gorde aldaketak Utzi

Formulario honetan **1** marka dutenak derrigorrezko eremuak dira.

"**Kalifikazio-kategoria**" (1) atalean, "**Kategoriaren izena**" (1.1) zehazteaz gain, garrantzitsua da "Guztizko kalkulu"rako agregazio (1.2) metodoa aukeratzea. Kasu honetan, "**kalifikazioen batez besteko ponderatua**" aukeratzen da, kategorian sartuko diren jardueren artean pisuak ezarri ahal izateko. Azkenik, "**Baztertu hutsik dauden kalifikazioak**" (1.3) aukera desmarkatzen da, kalifikatu gabeko jarduerak 0 kalifikazioa izan dezaten guztizko kalkuluan.

"**Kategorian guztira**" (2) atalean, honako konfigurazio hauek ezar daitezke: ID zenbakia, kalkulaturako notetan erabiliko dena; "kalifikazio mota" («Bat ere ez», «Balioa», «Eskala» edo «Testua»); "Gehieneko kalifikazio," «Gutxieneko kalifikazioa» eta "Gaunditzeko kalifikazioa"; "Kalifikazioa erakusteko modua" («Erreal», «Letra...»); eta «Ezkatutzeko edo «Blokatzeko» aukerak, modu iraunkorren edo aldi zehatzetan.

"**Goragoko kategoria**" (3) atalean, sortutako kategoria goragoko kategoria edo kurtsoa ez den beste kategoria batekoa izatea aukera daiteke. Hurrengo irudian, "Pisurik gabeko ebaluazio jarraia" kategoria nola azpikategoria gisa gordetzen den ikus daiteke (Goragoko kategoria (1), Etengabeko ebaluazioa (1.1)).

▼ **Goragoko kategoria**

Pisia doitu da **?**

Pisia **?**

Goragoko kategoria **1**

Adibide ikastaroa **1.1**

Adibide ikastaroa

Etengabeko ebaluazioa

Azterketa

Formulario honetan **1** marka dutenak derrigorrezko eremuak dira.

Kategoriak sortu ondoren, jarduerak "Aukeratu" zutabean aukera daitezke, eta hautatutako kategorian gorde "Mugitu hautatutako elementuak hona" "aukera erabiliz (2)

Izena	Pisuak	Gehieneko kalifikazioa	Ekintzak	Aukeratu
Adibide ikastaroa copia 1		-	Editatu	<input type="checkbox"/> Guztiak
1. Galdetegia		10,00	Editatu	<input checked="" type="checkbox"/>
2. Galdetegia		10,00	Editatu	<input checked="" type="checkbox"/>
3. Galdetegia		10,00	Editatu	<input checked="" type="checkbox"/>
1. Zeregina		100,00	Editatu	<input checked="" type="checkbox"/>
Ikastaroan guztira		100,00	Editatu	<input checked="" type="checkbox"/>
Kalifikazioen batez besteko ponderatu sinplea.				

Gorde aldaketak

Mugitu aukeratutako elementuak hona:

- Aukeratu...
- Aukeratu...
- Adibide ikastaroa
- Azterketa
- Etengabeko ebaluazioa
- Taldeak
- Pisurik gabeko etengabeko ebaluazioa

[Eduki hauei buruzko bideoa esteka](#)

2.2 Kalifikazio-elementua sortu eta notak kalkulu-orritik kargatu

"Kalifikazio-liburuaren ezarpenak" orriaren behealdean agertzen den "Gehitu kalifikazio-elementua" (1) aukera sakatu.

Ikastaroan guztira
100,00
Editatu ▾

Kalifikazioen batez besteko ponderatu sinplea.

Gorde aldaketak

Mugitu aukeratutako elementuak hona: Aukeratu...

Gehitu kalifikazio-elementua

Gehitu kategoria

"Kalifikazio-elementua" atalean "**Elementuaren izena**" (1) sartu.

"**Gehieneko kalifikazioa**" (1.1) alda daiteke. Berez ezarritako balioa 100 da

"Erakutsi gehiago" (2) sakatuz gero eremu gehiago aurkezten dira "ID zenbakia", ezkutatzeko aukerak... Gainjarrita azaltzen den irudian eremu horietako batzuk azaltzen dira solik. Adibide honetarako lehenetsita (0) azaltzen den "Gainditzeko kalifikazioa" (2.1) aldatu da.

Bukatzeko, "**Goragoko kategoria**" atalean, sortu berri den elementu hau "**Azterketa**"(3) izeneko "Kalifikazio kategoria"ren baitan gorde da.

Tolestu guztia

▼ Kalifikazio-elementua

Elementuaren izena

Kalifikazio mota

Eskala

Gehieneko kalifikazioa

Gutxieneko kalifikazioa

Blokeatuta

Erakutsi gehiago...

Gehieneko kalifikazioa

Gutxieneko kalifikazioa

Gainditzeko kalifikazioa

Kalifikazioa erakusteko modua

▼ Goragoko kategoria

Aparteko kreditua


Kalifikazio-kategoria

Gorde aldaketak

Utzi

Kalifikatzaile txostenean "Azterketa" izeneko zutabe edo elementua sortu ondoren eta "Azterketa" kategoriaren baitan gorde ondoren, hurrengo urratsa, sortu berri den zutabearekin eta gela birtualeko ikasle datuekin kalkulu orri bat esportatzea izango da

Horretarako "Kalifikazio-liburuaren" menu zabalgarrian "Esportatu" aukeraren baitan formatu ezberdinak daude. Kasu honetan "**Excel kalkulu-orria**" (1) aukeratu da. Zabaltzen den orrian "**Bat ere ez**" (2) aukeratuko da jarduera guztiak desmarkatzeko eta ondoren "**Azterketa**" (2.1) markatu ahal izateko. "**Esportatzeko formatuaren aukerak**" (3) eremuak dituen aukerak gainbegiratu ondoren, "**jaitsi**" (4) sakatu



Deskargatutako Excel dokumentuan, txertatu notak "**Azterketa (Erreala)**" (1) zutabeko gelaxketan. Irudian ikus daitekeenez, koma erabiltzen da zenbaki hamartarretarako. Ondoren, kopiatu "**Helbide elektronikoa**" eta "**Azterketa (Erreala)**" zutabeetako gelaxkak, **goiburuak barne** (2).

	A	B	C	D	E	F	G	H	I	J
1	Izena	Abizena	ID zenbaki	Erakundea	Departame	Helbide elektronikoa	Azterketa (Erreala)	Azkenik jaitsi da ikastaro hon		
2	ikasle	1				ikasle1@ehu.eus	8,8	1674654335		
3	ikasle	2				ikasle2@ehu.eus	7	1674654335		
4	ikasle	3				ikasle3@ehu.eus	6	1674654335		
5	ikasle	4				ikasle4@ehu.eus	4	1674654335		
6										
7										
8										
9										

Menu zabalgarrian "Itsatsi kalkulu-orritik"(1) aukeratu eta, formularioan, Excel dokumentuan kopiatutako zutabeen edukia **Data** (2) eremuan itsatsi. Ondoren, sakatu "**Igo kalifikazioak**" (3)

Itsatsi kalkulu-orritik

Itsatsi kalkulu-orritik

▼ Itsatsi kalkulu-orritik

Ikusi

Editatu

Inportatu

CSV fitxategia

1 Itsatsi kalkulu-orritik

XML fitxategia

Esportatu

OpenDocument-en kalkulu-orria

Testu lauako fitxategia

Data

Kodifikazioa

Hitzen bidezko eskalak

Aurreikusi zutabeak

UTF-8

Bai

10

Behartu inportatzea

2 Helbide elektronikoa
Azterketa (Erreal)

ikasle1@ehu.eus	8,8
ikasle2@ehu.eus	7
ikasle3@ehu.eus	6
ikasle4@ehu.eus	4

3 Igo kalifikazioak

Formulario honetan **1** marka dutenak derrigorrezko eremuak dira.

Irudiak jarraian agertzen den pantaila erakusten du. Irudiaren goialdean, inportatutako (1) datu-orriaren edukia agertzen da, itzalgune berde batekin nabarmenduta.

“**Identifikatu erabiltzaileak**” (2) eremuan “**Lotu fitxategiko eremua hau**” (2.1) menua erabil daiteke ikasle datuak dituen kalkulu-orriaren zutabea hautatzeko. Adibidean “**Helbide elektronikoa**” erabiltzen da.

“**Lotu Moodleko eremu honekin**” atalak aukera ematen du balio bereko “Kalifikatzaile-txostene”ko taulako zutabea hautatzeko. Ondoren, kalifikazio balioen arteko lotura egiten da.

“Kalifikazio-elementuen lotura” eremuak inportatutako kalkulu-orriko bi zutabeak erakusten ditu. Lehenengo zutabean “Helbide elektronikoa” izenekoan “Baztertu” aukeratuko da, kalifikazio daturik ez dagoelako. Bigarren zutabean, “Azterketa (Erreal)”, menu zabalgarriko “Kalifikatzaile-txosten”eko “Azterketa” (3.2) zutabea aukeratu beharko da.

Inportazioa bukatzeko “Igo kalifikazioak” sakatu.

Itsatsi kalkulu-orritik

Itsatsi kalkulu-orritik

Inportazioaren aurrebista

Helbide elektronikoa	Azterketa (Erreala)
ikasle1@ehu.eus	8,8
ikasle2@ehu.eus	7
ikasle3@ehu.eus	6
ikasle4@ehu.eus	4

▼ Tolestu guztia

2 Identifikatu erabiltzaileak

Lotu fitzategiko eremu hau

Lotu Moodleko eremu honekin

Erabiltzailearen IDa

Erabiltzaile-izena

ID zenbakia

Helbide elektronikoa

Baztertu

3 Kalifikazio-elementuen lotura

Helbide elektronikoa

3.1 Azterketa (Erreala)

Igo kalifikazioak

Hurrengo irudian, inportazioa berresteko mezu bat ageri da. **"Jarraitu"** (1) sakatzerakoan "Kalifikatzaile-txosteneko" taula agertzen da, non inportatutako balioak "Azterketa" izeneko kalifikazio-elementuaren zutabean azaltzen diren.

Itsatsi kalkulu-orririk

Itsatsi kalkulu-orririk

Kalifikazioak ondo inportatu dira

Jarraitu 1

Azterketa		
Azterketa	Azterketa guztira	Ikasle
-	8,80	88,00
-	7,00	70,00
-	6,00	60,00
-	4,00	40,00
-	6,45	64,50

[Eduki hauei buruzko bideora esteka](#)

2.3 Kategorietan pisuak ezarri

Adibide honetan, ikastaroaren guztizkoa kalkulatzeko agregazio metodoa "Kalifikazioen batez besteko ponderatua" azaltzen da, eskuliburu honetako 2.1 atalean ezarri bezala.

Bi kategoriatan banatzen da: "**Etengabeko ebaluazioa**" eta "**Azterketa**". Gainera, "**Etengabeko ebaluazioaren**" barruan, "**Pisurik gabeko etengabeko ebaluazioa**" azpi-kategoria bat sortzen da.

Jarraian, irudiak "Kalifikazio-liburuaren ezarpenak" ataleko hiru zati erakusten ditu, handiegia baita osorik erakusteko.

Alde batetik, "Etengabeko ebaluazioa" kategoriari dagokion "**Pisuak**" zutabearen 6 bat ezarri da (1). Gainera, "**Etengabeko ebaluazioaren**" baitan dagoen **Pisurik gabeko etengabeko ebaluazioa** azpi-kategorian. 0 pisua ezarri da (1.1). Bestaldetik, "**Azterketa**" kategorian 4 pisua ezarri da (2).

Pisuen balioa alda daiteke, baina pisuen batura 10 izatea gomendatzen da, pisu erlatiboa ulertu ahal izateko.

Bukatzeko, "Gorde aldaketak" (3) sakatu.

Izena	Pisuak	Gehieneko kalifikazioa	Ekintzak	Aukeratu
Adibide ikastaroa copia 1		-	Editatu	<input type="checkbox"/> Guztiak
Etengabeko ebaluazioa	6,0	-	Editatu	<input type="checkbox"/> Etengabeko e...
1. Galdeteia	1,0	10,00	Editatu	<input type="checkbox"/>
Pisurik gabeko etengabeko ebaluazioa	0,0	-	Editatu	<input type="checkbox"/> Pisurik gabe...
1. Foroa foro osoa	1,0	**** Bikain (4)	Editatu	<input type="checkbox"/>
1. Ikasteko jarduera	1,0	100,00	Editatu	<input type="checkbox"/>
Etengabeko ebaluazioa guztira Kalifikazioen batez besteko ponderatua. Sartu hutsik dauden kalifikazioak.		100,00	Editatu	
Azterketa	4,0	-	Editatu	<input type="checkbox"/> Azterketa
Azterketa		10,00	Editatu	<input type="checkbox"/>
Azterketa guztira Kalifikazioen batez besteko ponderatu sinplea.		100,00	Editatu	
Ikastaroan guztira Kalifikazioen batez besteko ponderatua.		100,00	Editatu	

Gorde aldaketak

Mugitu aukeratutako elementuak hona: Aukeratu...

Gehitu kalifikazio-elementua Gehitu kategoria

[Eduki hauei buruzko bideora esteka](#)

2.4 "Batuketa_naturala" metodoa erabiliz kategorien pisuak ezarri

Batuketa_Naturala metodoak ikastaro baten kategorien pisu erlatiboak ezartzeko beste aukera bat ahalbidetzen du. Kasu honetan, kontuan izan behar da ikastaroaren guztizkoa ikastaroko kategorien guztizkoen baturara egokitzen dela. Aurkeztutako adibidean, eta aurreko balioei eutsiz (1), "Etengabeko ebaluazioa" (100) eta "Azterketa" (100) kategorien guztizkoa 200 da.

Pisuak zehazteko eta ikastaroaren guztizkoa 100ean mantentzeko, kategorien guztizkoak egokitzen dira (2).

Kategoria baten “gehieneko kalifikazioa” aldatzeko, sakatu «Editatu» menu zabalgarrian, eta, ondoren, «Editatu» kategoriara. “Gehieneko kalifikazioa” (2) eremuan txertatu nahi den balioa.

OHARRA: Kategoria bakoitzak, nahasi samarra izan daitekeen arren, bi menu “Editatu” ditu. Lehenengoa, erabili berri dena, kategoriaren izenaren parean dagoena, eta bigarrena, 3. atalean (Kalkulatutako kalifikazioak eta baldintzazkoak) azaltzen diren aukerak dituen, kategoria osoaren parean.

[Eduki hauei buruzko bideoa esteka](#)

3 “Kalkulatutako kalifikazioak” eta eragile logikoen erabilera

3.1 Kalkulatutako kalifikazioetara sarrera

“Kalkulatutako kalifikazioek” kalkulu-formula pertsonalizatuak ezartzea ahalbidetzen dute. ormula horiek eragile logikoak erabili ditzakete, eta, horri esker, adibidez, kalifikazio bat – adibidez, “Etengabeko ebaluazioa” kategoriaren guztizkoa – muga edo puntu jakin batera iritsi ezean, ikasturtearen amaierako nota kalkulatzean kontutan ez hartzea.

“Kalkulatutako kalifikazioen” editorera sartzeko, kasu honetan Ikastaroaren guztiraren kalkulua editatzeko, sakatu **“Editatu”** (1) eta, ondoren, **“Editatu kalkulua”** (1.1). Irudian ikus daiteke nola **“Azterketa guztira”** kategoriak menu bera duela (2)

The screenshot shows a list of evaluation elements. At the top, 'Azterketa' has a weight of 10,00. Below it, 'Azterketa guztira' has a weight of 100,00. Further down, 'Ikastaroan guztira' also has a weight of 100,00. Each element has an 'Editatu' button. A red circle with the number '2' highlights the 'Editatu' button for 'Azterketa guztira', and a red circle with the number '1' highlights the 'Editatu' button for 'Ikastaroan guztira'. A dropdown menu is open for the 'Ikastaroan guztira' element, showing options 'Editatu kalkulua' (highlighted with a red circle '1.1') and 'Ezkutatu'. At the bottom, there is a button 'Gorde aldaketak' and a search field 'Mugitu aukeratutako elementuak hona: Aukeratu...'.

Kalkulu pertsonalizatuaren formula txertatu aurretik, ID zenbakia erabili beharreko elementuei ID zenbaki bat esleitu behar zaie, kasu honetan "Etengabeko ebaluazioa" eta "Azterketa" kategoriei. Dagozkien testu-kateak eremuan sartu eta sakatu **Gehitu ID zenbakiak** (1). Gordetako balioak kortxeteen artean erakusten dira, horiek aldatzea ahalbidetzen duen eremurik gabe (1.1 eta 1.2). Jarraian, "**Kalkulua**" (2) eremuan formula sar daiteke.

The screenshot shows the configuration page for an evaluation element. At the top, the title is 'Kalifikazio-elementua'. Below it, the 'Elementuaren izena' field is empty. The 'Kalkulua' field contains a formula:
$$=if([Azterketa] >= 40; round((([Azterketa] / 100 * 4) + ([EtenEbal] / 100 * 6)) / (6 + 4); 4) * 100; [Azterketa])$$
 A red circle with the number '2' highlights the formula field. Below the formula field are buttons 'Gorde aldaketak' and 'Utzi'. The 'ID zenbakiak' section shows a tree view of categories. A red circle with the number '1.1' highlights the 'Ikastaroan guztira' category, and a red circle with the number '1.2' highlights the 'Azterketa' category. Red arrows point from these circles to the 'Kategorian guztira' fields in the tree view. A red circle with the number '1' highlights the 'Gehitu ID zenbakiak' button at the bottom.

Kalkulu pertsonalizatuaren editorearen interfazean ezarritako kategoria bateko ID zenbakiaren edizioa blokeatuta geratzen da. Ondoren aldatu nahi izanez gero, dagozkion kategoriako "**Editatu ezarpenak**" (1) zabaldu behar da, "**Zabaldu guztia**" (2) sakatu eta "**Kategorian guztira**" atalean "**ID zenbakia**" eremua editatu.

[Esteka honetan Moodlen kalkulaturako kalifikazioei buruz argitaratutako dokumentazioa kontsulta daiteke](#)

OHARRA: Kontuan izan behar da formuletan erabiltzen den bereizgailua "koma" dela nabigazio-hizkuntza ingelesa denean, eta puntu eta koma "beste edozein hizkuntzatan. Hau formulak editatzeko unean soilik kontutan izan behar da soilik, beste edozein unetan formulak automatikoki egokitzen dira.

[Eduki hauei buruzko bideora esteka](#)

3.2 Adibide erraz bat MAX eragilea erabiliz

Max operadoreak multzo bateko elementuen baliorik altuena atxikitzen du. Adibide honetan kalifikaziorako bi elementu sortu dira (1. Partziala eta 2. Partziala) eta dagozkien ID zenbakiak esleitu zaizkie: Az1-a eta Az2-a.

Kalifikazio-elementua		Azterketa			
Elementuaren izena	Kalkulua	1.partziala	2.partziala	Azterketa guztira	
Kategorian guztira	$=\max([[Az1]];[[Az2]])*10$	7,00	8,80	2.1	88,00
1.partziala: [[Az1]]		4,00	7,00		70,00
2.partziala: [[Az2]]		3,00	6,00		60,00
		6,00	4,00		60,00
		5,00	6,45		69,50

Kalkulu editatzeko eremuaren pantaila harrapaketan **max eragilea darabilen formula** ikus daiteke (1). Adibide honetan, bi kalifikazioen arteko baliorik altuena 10ez biderkatu behar da partzial bakoitzeko kalifikazio maximoa 10 delako eta kategoriaren kalifikazio maximoa 100 delako (2). Taulan "Azterketa guztira" zutabeak emaitzak erakusten ditu (2). Itzaltze gorri batekin (2.1) nabarmendutako kalkulagailu ikonoak kalkulu pertsonalizatua erabiltzen ari dela adierazten du.

$=\max([[Ex1]];[[Ex2]])*10$

OHARRA: Egia esan, emaitza hori lortzeko ez da beharrezkoa kalkulu pertsonalizatua erabiltzea, agregazio metodo bezala "kalifikazio altuena" aukeratzea nahikoa izango litzateke. Eskuliburu honetan gehitu da adibide erraz bat erakusteko.

[Eduki hauei buruzko bideora esteka](#)

3.3 Adibide bat IF eragilea erabiliz

Hurrengo adibidean, IF eragilea erabiliko dugu, "Azterketaren" guztizko nota 100etik 40 puntura iristen ez bada, "Etengabeko Ebaluazio"ko nota kontuan har ez dadin.

Eskuliburu honetan orain arte garatu den adibidean, "Azterketa"ren pisua 4 da, eta "Etengabeko ebaluazioa"ren pisua 6. Beraz, aipatutako baldintza aplikatzen denean, azterketaren kalifikazioa 4 eta 5 puntu artekoa bada, ezin izango da "Etengabeko Ebaluazio"ko notarekin batez bestekoa egin eta irakasgaia gaititu.

"Kalifikazio-liburuaren ezarpenak" atalean, sakatu "Editatu" eta "Editatu kalkulua" ikastaroaren guztiran (ikus aurreko ataletako oharrek), eta honako formula hau txertatu

```
=if([[Examen]]>=40;round(((([[Examen]]/100*4)+([[EvalCont]]/100*6))/(6+4);4)*100;[[Examen]])
```

Ondorengo irudiaren goiko aldean dagoen koadroan **hiru zatitan zatitutako formula ikus daiteke**. Lehenengo eta bigarren zatien amaieran, **puntu eta koma daude, bereizle gisa**.

- Lehenengo atalean **baldintza** ageri da, ID zenbakiaren zutabeko balioa 40 puntutik gorakoa den ebaluatzen duena.
- Bigarren zatian, **aurreko ebaluazioaren emaitza EGIA izanez** gero bete beharreko agindua agertzen da. Agindu honekin 2.3 ataleko adibideko "Azterketa" eta "Ebaluazio jarraia" kategorietan pisua ezarritako "Kalifikazioen batezbesteko ponderatua" metodoarekin lortzen den emaitza bera lortzen da.
- Hirugarren atalean **aurreko ebaluazioaren emaitza GEZURRA izanez gero** aplikatu beharreko agindua agertzen da. Kasu honetan "Azterketa guztira" zutaberi lotuta dagoen Azterketa "ID zenbakia" azaltzen da soilik.

Taulan ikus daitekeenez, Kalkulagailua ikonoa kalkulua formula pertsonalizatu bat erabiliz egin dela adierazten du(1). Marratxo beltz etenekin formularen sartutako zutabeak adierazten dira («Azterketa» (2.1) eta «EtenEbal» (2.2)). Ikasle 2ren kasuan, "Azterketa"ko bere nota ezarritako muga baino txikiagoa da, beraz nota hori "Ikastaroa guztira" zutabera doa zuzenean. Ikasle3 eta Ikasle4ren kasuan aldiz, haien notek ezarritako muga gainditzen dutenez, "Ikastaroa guztira" zutabean "Azterketa" eta "EtenEbal" noten batez besteko ponderatua erakusten da.

Baldintza → =if([[Azterketa]]>=40;
Bai → round(((([[Azterketa]]/100*4)+([[EtenEbal]]/100*6))/(6+4);4)*100;
Ez → [[Azterketa]])

		Adibide ikastaroa copia 1		
		Azterketa+	Etengabeko ebaluazioa+	
		Azterketa guztira	Etengabeko ebaluazioa guz...	
Izena / Abizena	Helbide elektronikoa			Ikastaroan guztira
ikasle 1	ikasle1@ehu.eus	79,00	79,25	79,15
ikasle 2	ikasle2@ehu.eus	35,00	65,50	35,00
ikasle 3	ikasle3@ehu.eus	45,00	54,30	50,58
ikasle 4	ikasle4@ehu.eus	47,50	52,20	50,32
Batez besteko orokorra	Batez besteko orokorra	51,63	62,81	53,76

Azterketa 2.1
EtenEbal 2.2

[Eduki hauei buruzko bideora esteka](#)

3.4 IF eta AND eragileak konbinatuz adibide bat

Hurrengo adibidean, baldintza gehiago ezartzen dituen formula bat erabiltzen da: kalifikazio elementu bi sortu dira, 1. Partziala, **Az1**. (1.1) ID zenbakiarekin eta 2. Partziala, **Az2** ID zenbakiarekin (1.2). Bi proben notek 4 puntuko muga gainditu behar dute, ikastaro osoa kalkulatzeko orduan "**Azterketa**" (2.1) eta "**Etengabeko Ebaluazioaren**" (2.2) guztizkoen artean batez besteko ponderatua egiteko.

Erabili beharreko formula ondokoa da:

```
=if(and([[Az1]]>=4;[[Az2]]>=4);round(((([[EtenEbal]]/100*6)+([[Azterketa]]/100*4))/(6+4);4)*100;[[Azterketa]])
```

Ondorengo irudiaren goiko aldean dagoen koadroan **hiru zatitan zatitutako formula ikus daiteke**

Lehenengo zatian, AND eragilea IF eragilearen parentesiaren hasieran sartuta dago, eta, aldi berean, **bi azpi-zati** ditu, bete beharreko baldintza bakoitzarekin. Ondorengo bi zatiak (emaitza egia edo gezurra den kontuan hartuta exekutatu beharreko aginduak) aurreko adibidekoen berdinak dira.

Baldintza → =if(and([[Az1]]>=4;[[Az2]]>=4);

Bai → round((([[Azterketa]]/100*4)+([[EtenEbal]]/100*6))/(6+4);4)*100;

Ez → [[Azterketa]])

Adibide ikastaroa copia 1						
Izena / Abizena	Azterketa			Etengabeko ebaluazioa		
	1.partziala	2.partziala	Azterketa guztira	Etengabeko ebaluazioa guztira	Ikastaroan guztira	
ikasle 1	7,00	8,80	79,00	79,25	79,15	
ikasle 2	3,00	4,00	35,00	65,50	35,00	
ikasle 3	4,00	5,00	45,00	54,30	50,58	
ikasle 4	6,00	3,50	47,50	52,20	47,50	
Batez besteko orokorra	5,00	5,33	51,63	62,81	53,06	
	Az1	Az2	Azterketa	EtenEbal		

Irudi honetan ikus daitezkeen bezala, Ikasle4ren 2. partzialeko notak (4) ez du betetzen "Etengabeko ebaluazioa" ikastaroaren guztirako notan kontutan hartzeko ezarritako baldintza.

4 Azken ezarpenak eta kudeaketa

Atal honetan, "Kalifikazioen Liburuaren" konfigurazioak ikasleen ikuspegiaren nola islatzen diren aztertuko da. Adibidez, jarduera baten kalifikazioa ezkutatzeko bada, dagokion kategoriaren guztizkoa ez da irakasleen ikuspegiaren aldatuko, baina bai ikasleenean. Ezberdintasun horiek kontrolatu ahal izateko, Erabiltzailearen menuan ikuspegiak txandaka daitezke eta nahi diren **kalifikazio lehentasunak Ikastaroaren ezarpenetan** zehatz daitezke.

Atal hau amaitzeko, bi adibide: 1) nola saihestu "Ebaluazio jarraitua" kategoriaren guztizkoak ikasturtean zehar emaitza okerra erakustea, entregatzeko eta kalifikatzeko epea oraindik lortu ez duten jarduerak direla-eta, eta 2) nola bi jarduera ibilbide paralelo gisa ezarri, taldekoa izateagatik sarrera mugatuarekin, eta ikasleen ikuspegiaren jardueren pisu erlatibo zuzenak erakusten jarraitu.

4.1 Ikasleen ikuspegia konfiguratu

"Erabiltzaile txostena" ikastaroko partaide baten kalifikazioak ikusteko aukera ematen du. Gainera, ikasleen eta irakasleen ikuspegiak txandakatu daitezke, non ezkutuko kalifikazioak ikus daitezkeen. "Erabiltzailearen" orrialdeko taula honetan erakutsitako zutabeak "Ikastaroaren kalifikazioaren ezarpenak" atalean pertsonaliza daitezke.

Kalifikazio-liburuko menu zabalgarrian **"Erabiltzaile-txostena (1)"** elementua hautatzen da. Atal honetan ikasle jakin baten kalifikazioak aukeratzeko **"Aukeratu erabiltzaile bat edo guztiak"** menua erabil daiteke. Gainera, **"Ikusi txostena honela"** funtzionalitateak ikasleak ikusten duten informazioa eta irakasleek ikusten dutenaren artean txandakatzeko aukera eskaintzen du.

Irudian, ikastaroko noten taularen goiko aldea ikus daiteke (4). Adibide honetan **2. partziala** "kalifikazio elementua" ezkutatu egin da (4.1), Irakasleen ikuspegiaren grisez agertzen da (Ni neu), eta ez da agertzen ikasleen ikuspegia

(Erabiltzailea)

kontsultatzerakoan.

The screenshot shows the user profile page for 'ikasle 1'. On the left, a dropdown menu 'Erabiltzaile-txostena' is open, showing options like 'Ikusi', 'Kalifikatzaile-txostena', 'Kalifikazio-historia', 'Ikaste-emaizten txostena', 'Txosten orokorra', 'Banakako ikuspegia', 'Erabiltzaile-txostena' (highlighted), and 'Ezarpenak'. In the top right, there are dropdowns for 'Erabiltzaile' (set to 'Erabiltzailea') and 'Ikusi txostena honela' (set to 'Ni neu'). The main content area shows a table with columns: 'Kalifikazio-elementua', 'Kalifikazioa', 'Ibiltartea', 'Ehunekoa', 'Feedbacka', and 'Ikastaroaren denerako ekarpena'. A table titled 'Adibide ikastaroa copia 1' contains data for 'Azterketa' (Exam) with two parts: '1.partziala' (7,00, 0-10, 70,00%, 14,00%) and '2.partziala' (8,80, 0-10, 88,00%, 17,60%). A summary row 'Azterketa guztira' shows a total score of 79,00 out of 100 (79,00%). A red dashed box highlights the 'Kalkulatutako pisua' column in the table, with a red number 4.1 pointing to the 88,00% value.

"Ikastaroaren kalifikazioen ezarpenak" orrialdeko "Erabiltzaile-txostena" atalean, Erabiltzailearen ikuspegian erakutsi nahi diren zutabeak (2) aukera daitezke. Konfigurazio honek ikasleen ikuspegia ere aldatzen du. Adibide honetan, "Erakutsi sailkapena" (1.1), "Erakutsi ehunekoa" (1.2) eta "Erakutsi ikastaroaren denerako ekarpena" (1.3) elementuak ezkutatu dira. Gainera, "Erakutsi ponderazioak" (1.4) zutabea erakusten da taulan "Kalkulatutako pisua" goiburuarekin agertzen dena.

The screenshot shows the 'Ikastaroaren kalifikazioen ezarpenak' (Course grading settings) panel. The panel is titled 'Erabiltzaile-txostena' and contains several settings: 'Erakutsi sailkapena' (1.1), 'Erakutsi ehunekoa' (1.2), 'Erakutsi kalifikazioak' (Balio lehenetsia), 'Erakutsi feedbacka' (Balio lehenetsia), 'Erakutsi ponderazioak' (1.4), 'Erakutsi batez bestekoa' (Balio lehenetsia), 'Erakutsi kalifikazio-letrak' (Balio lehenetsia), 'Erakutsi ikastaroaren denerako ekarpena' (1.3), and 'Erakutsi ibiltarteak' (Balio lehenetsia). The main content area shows a table with columns: 'Kalifikazio-elementua', 'Kalkulatutako pisua', 'Kalifikazioa', 'Ibiltartea', and 'Feedbacka'. A table titled 'Adibide ikastaroa copia 1' contains data for 'Azterketa' (Exam) with two parts: '1.partziala' (50,00%, 7,00, 0-10) and '2.partziala' (50,00%, 8,80, 0-10). A summary row 'Azterketa guztira' shows a total score of 40,00% (79,00) out of 100. A red dashed box highlights the 'Kalkulatutako pisua' column, with a red number 2 pointing to it.


[Eduki hauei buruzko bideora esteka](#)

4.2 Jarduerak ikastaroan edo Kalifikazio-liburuan ezkutatu


Eskuliburuiko atal honetan ikastaroan jarduerak ezkutatzeko edo "Kalifikazio-liburuan" jardura horien edo kategorien guztizkoen kalifikazioak ezkutatzeko ikasleen ikuspegian duen eragina eta goragoko kategorietako edo ikastaroko guztizkoen kalkuluetan duen eragiten azaltzen dira.

Garrantzitsua da jarduerak ikastaroaren orri nagusian ezkuta daitezkeela edo kalifikazio-liburuan ezarpenetan horrela adieraziz ezkuta daitezkeela bereiztea. Jarduera bat ebaluatzen ari denean eta bidalketa guztien kalifikazioa amaitu arte notarik argitaratu nahi ez denean, jarduera "Kalifikazio-liburu"tik ezkutatzea gomendatzen da.

OHARRA: Garrantzitsua da ohartaraztea, ezkutuko kalifikazioak dauden kategorietan guztizko horiek duten portaera, "**Ikastaroaren kalifikazioen ezarpenak**" (1) orrialdeko konfigurazio baten arabera dela. "**Ezkutatu guztirakoak ezkutuko elementuak baldin badituzte**" (2) aukeraren berezko balioa "Erakutsi guztirakoak ezkutuko elementuak baztertuta" da. Adibide honetan aukera hau aldatu egin da eta "**Ezkutatu**" (2.1) jarri da haren orde.



Hurrengo irudian **Erabiltzailea-txostena** (1) atala agertzen da, "Ikasle 1" ikaslearekin (1.1) eta txostenaren ikuspegia "Erabiltzailea" (1.2) bera bezala. Beheko aldean, kalifikazioen taula (2) agertzen da, non "**2.partziala**" kalifikazio-elementu ezkutua (partziala) agertzen ez den. Gainera, "Azterketa" kategoriaren guztizkoa ere ezkutuan dago.



[Eduki hauei buruzko bideoa esteka](#)

4.3 Bi estrategia ikasleei informazioa erakusteko

Kategorien edo ikastaroen guztizko emaitzak nahasgarriak izan daitezke kalifikazioak falta direnean edo jarduera batzuk erakusten ez direnean. Kategoriatan edo ikastaroan kalifikazio hutsak baztertzeko aukerari eusten bazaio (ikus 1.4.4 atala), emaitzak kalifikatutako jardueren batez bestekoa erakutsiko du, baina ez ditu zigortuko bidalketarik izan ez duten jarduerak. Aldiz, «Kalifikazio hutsak baztertu» laukitxoa desmarkatzen bada, guztizko emaitzak ere nahasgarriak izan daitezke, bidaltzeko epea bete ez duten jarduerak kontutan izango baitira batez bestekoa kalkulatzeko – eta ez dira bidali eta ez dira kalifikatu ere egin. Arazo hori saihesteko, bi aukera erabil daitezke:

- **Bidalketa epea zabalik ez duten jarduera guztiak ezkutatu.** “Etorkizunean” izango diren jarduerak ezkutuan mantentzen badira eta, gainera, «kalifikazio hutsak baztertu» laukitxoa desmarkatzen bada, kategoriaren emaitzak bidalketak dituzten eta kalifikatu diren jardueren batez bestekoa erakutsiko du, eta egin ez diren bidalketak zigortuko ditu. Hala ere, pisu erlatiboak berdinak ez badira, emaitza desitxuratuta egongo da.
- **Jarduera guztiak kalifikatu arte kategorien guztizkoak ezkutatzea.** Aukera honek okerrak izan daitezkeen emaitzak erakustea saihesten du. Gainera, jardueren pisuak eta tarteak erakusten badira, ikasleek beraien kalifikazioa kalkula dezakete.

The screenshot displays a table with two rows of data. The first row is for 'Etengabeko ebaluazioa guztira' with a weight of 100,00 and an 'Ezkutatu' button. The second row is for 'Ikastaroan guztira' with a weight of 100,00 and an 'Ezkutatu' button. A red notification bubble with the number '1' is next to the 'Ezkutatu' button in the first row, and a red notification bubble with '1.1' is next to the 'Ezkutatu' button in the second row. Below the table is a 'Gorde aldaketak' button and a dropdown menu for 'Mugitu aukeratutako elementuak hona:' with the text 'Aukeratu...'.

[Eduki hauei buruzko bideoa esteka](#)

4.4 Zeregin berdinentzat bi bidalketa ezberdin antolatu

Bi talde sortu dira eta zeregin bat **talde bakoitzari mugatu eta beste taldeari ikusezin** izatea ezarri da (1; 2). Irudian, **3. zeregina (Taldea A)** (1.1) jardueraren eskuragarritasun murrizketa ikus daiteke.

Eskuragarritasun murrizketak ezarri diren arren (ikus 1 eta 2 aurreko irudian), zereginen banaketa horrek ikasleen bistako pisu erlatiboak desitxuratzen ditu. Hurrengo irudian, **Ikasle 1en** (1) ikuspegia ikus daiteke eta ikasle horren kalifikazioen taula, eskuinaldean (1.1).

Irudiaren ezkerrean **Irakasle 1en** (2) “Kalifikazio-liburuaren ezarpenak” ikuspegia ikus daiteke. Jardueren pisu erlatiboak, “3. zeregina (B taldea)” izan ezik, Ikasle 1eri ez dagokiolako, **guztira 10 dira** (2.1). Ikasleen ikuspegiak kontuan hartzen ditu bidali gabeko jarduerak, «**Kalifikazio hutsak baztertu**» laukia markatuta ez dagoelako (2.2). Hala ere, jarduera horien pisu erlatiboak Ikasle 1en ikuspegiaren **% 80** (3) dira, eta ez % 100.

irakasle 1 Baztertu hutsik dauden kalifikazioak

2

1. Galdetegia 1,0

2. Galdetegia 1,0

3. Galdetegia 1,0

1. Zeregina 1,5

2.1 Zeregina 1,5

2.2 Zeregina 1,5

3. Zeregina (Taldea A) 2,5

3. Zeregina (Taldea B) 2,5

2.1

2.2

Ponderazioak ez daude ondo doituta

ikasle 1

1

Etengabeko ebaluazioa

	Kalkulatutako pisua	Kalifikazioa	Ibiltartea
1. Galdetegia	8,00 %	10,00	0-10
2. Galdetegia	8,00 %	9,00	0-10
3. Galdetegia	8,00 %	8,50	0-10
1. Zeregina	12,00 %	80,00	0-100
2.1 Zeregina	12,00 %	70,00	0-100
2.2 Zeregina	12,00 %	-	0-100
3. Zeregina (Taldea A)	20,00 %	-	0-100

3

1.1

=10

=80

Arazo hori ekiditeko, **2,5 pisu erlatiboa (1)** duen azpi-kategoria bat sortzen da "Ebaluazio jarraiaren" baitan eta "Kalifikazio altuena" (1.1) agregazio metodo gisa. 3. Zeregina (Taldea A) eta 3. Zeregina (Taldea B) jarduerak kategoria honen barruan antolatuko dira.

2.2 Zeregina	1,5	100,00	Editatu	<input type="checkbox"/>
Taldetako zeregina	2,5	-	Editatu	<input type="checkbox"/>
3. Zeregina (Taldea A)		100,00	Editatu	<input type="checkbox"/>
3. Zeregina (Taldea B)		100,00	Editatu	<input type="checkbox"/>
Taldetako zeregina guztira		100,00	Editatu	

Kalifikazio altuena.

1

2

1.1

Hurrengo irudiak Ikasle1 (1) eta Irakasle1en (2) ikuspegiak alderatzen ditu berri ro, azpi-kategoria batean talde-lanak berrantolatu ondoren. Orain ikus daitekeen moduan, irakasle ikuspegian(2.1) ATaldearen jardueren pisu erlatiboen batura ikasleen ikuspegian agertzen denarekin bat dator (3)

Ebaluazioak

	Kalkulatutako pisua	Kalifikazioa	Ibiltartea
Etengabeko ebaluazioa			
1. Galdetegia	10,00 %	10,00	0-10
2. Galdetegia	10,00 %	9,00	0-10
3. Galdetegia	10,00 %	8,50	0-10
1. Zeregina	15,00 %	80,00	0-100
2.1 Zeregina	15,00 %	70,00	0-100
2.2 Zeregina	15,00 %		0-100
Taldetako zeregina			
3. Zeregina (Taldea A)	0,00 % (Vacio)	-	0-100
Total Taldetako zeregina	25,00 %	-	0-100
Calificación más alta.			

[Eduki hauei buruzko bideoa esteka](#)

5 Kalifikazio-liburuko datuak kontsultatu

5.1 Kalifikazio-historia eta baliogabetutako notak

"**Kalifikazio-historia**"(1) atalak kalifikazio baten sekuentzia kronologikoa berrikusteko aukera eskaintzen du.

Ondorengo irudian, aztertu nahi den kalifikazioaren historia hautatzeko formularioa ikus daiteke: "**Aukeratu erabiltzailea**" (1.1), "**Kalifikazio-elementua**" (1.2) eta "**Kalifikatzailea**"(1.3) ikasgelan irakasle bat baino gehiago dauden kasuetarako.

Kalifikazio-historia

1 Kalifikazio-historia

Aukeratu erabiltzaileak 1.1 Aukeratu erabiltzaileak

Aukeraturutako erabiltzaileak ikasle 2

Kalifikazio-elementua 1.2 2.partziala

Kalifikatzailea 1.3 Kalifikatzaile guztiak

Noiztik 20 otsaila 2023 Gaitu

Noiz arte 20 otsaila 2023 Gaitu

Berrikusatutako kalifikazioak baino ez

Bidali 2

Aukeratu erabiltzaileak

Bilatu

4 erabiltzaile aurkitu dira

- ikasle 1 (ikasle1@ehu.eus)
- ikasle 2 (ikasle2@ehu.eus)
- ikasle 3 (ikasle3@ehu.eus)
- ikasle 4 (ikasle4@ehu.eus)

Amaitu erabiltzaileen aukeraketa

Ondoren "Bidali" (2) botoia sakatu.

Hurrengo irudian, "Ikasle 2"ren "2. partziala"ri (1) dagokion kalifikazio kontsulta ikus daiteke. (1).

Data eta ordua	Izena / Abizena	Helbide elektronikoa	Kalifikazio-elementua	Jatorrizko kalifikazioa	Kalifikazioa berrikusi da	Kalifikatzailea	Iturburua
osteguna, 2023(e)ko otsailaren 16(e)an, 10:47(e)tan	ikasle 2	ikasle2@ehu.eus	2.partziala	4,00	4,00	irakasle 1	
astelehena, 2023(e)ko otsailaren 13(e)an, 15:13(e)tan	ikasle 2	ikasle2@ehu.eus	2.partziala	7,00	4,00	irakasle 1	gradebook
asteazkena, 2023(e)ko otsailaren 8(e)an, 15:28(e)tan	ikasle 2	ikasle2@ehu.eus	2.partziala		7,00	irakasle 1	import

5.1.1 Baliogabetutako notak

Hurrengo irudian, "Kalifikatzaile-txostena"ren taula ageri da, edizioa aktibatuta duela (1). "1Partziala" eta "2Partziala"(2) kalifikazio elementuetan eta "1Galdetegia" (3) eskuz aldatetak egin dira. Ikus daitekeenez, kalifikazio-elementuei dagozkien kalifikazioak (2.1) ez daude inongo markekin gordeta (2.1) baina jardueraren kasuan, "1. Galdetegia" (3) itzal marroi batekin agertzen da (3.1). Kalifikazio-elementuak taulako zutabeak dira eta ez dute inongo jarduerekin loturarik ondorioz, ez dute kalifikazio-iturririk, baina jardueraren kasuan, kalifikazioak ikastarotik etortzea espero da.

Izena / Abizena	Helbide elektronikoa	1. partziala	2. partziala	Azterketa guztira	1. Galdetegia
ikasle 1	ikasle1@ehu.eus	7,00	8,80	79,00	10
ikasle 2	ikasle2@ehu.eus	3,00			
ikasle 3	ikasle3@ehu.eus	4,00			
ikasle 4	ikasle4@ehu.eus	6,00			
Batez besteko orokorra	Batez besteko orokorra	5,00			

Adibide ikastaroa copia 1					Etengabeko ebaluazioa	
Azterketa						
	1. partziala	2. partziala	Azterketa guztira	1. Galdetegia		
	7,00	8,80	79,00	10,00	3.1	
	3,00	4,00	35,00			

"Zeregina" edo "Galdetegia" bezalako jardueretan itzal marroi batekin markatuta azaltzen diren kalifikazioak blokeatuta gelditzen dira "ohiko bideetatik" aldatzeko; hau da, "zeregin" batean kalifikazio formularioa erabiliz edo auto-ebaluazioa "galdetegien" kasuan.

Blokeo hau kentzeko "edizioa aktibatu" (1) "Kalifikatzaile-txosten"eko taulan eta "Editatu kalifikazioa" (1.1) sakatu. Zabaltzen den formularioan (2) "Amaierako kalifikazioa" (2.1) eremuko edukia ezabatu eta desmarkatu "Baliogabetuak" laukitxo (2.2)

Desaktibatu edizioa **1**

1 Etengabeko ebaluazioa

terketa guztira 1. Galdetegia 2. G

79,00 10,00

1.1

2 Editatu kalifikazioa

Erabiltzailea ikasle 1

Elementuaren izena 1. Galdetegia

2.2 Baliogabetuak **3**

Amaierako kalifikazioa **2.1** 10,00

Baztertutakoak

Ezkutuan

Noiz arte ezkutuan 20 otsaila 2023

[Eduki hauei buruzko bideora esteka](#)